



LOATZO musika eskolako logotipoa aukeratzeko lehiaketaren oinarriak

LOATZO Musika eskolak lehiaketa bat antolatu du musika eskolarako logotipoa aukeratzeko. Oinarri hauetan zehazten dira parte hartzeko eta aurkeztu ahal izateko baldintzak eta epeak.

1.- HELBURUA

Musika eskolaren logotipoa definitzea. Logotipo hau zerbitzu honetan antolatuko diren ekintza desberdinen berri ematerakoan erabiliko da. Lehiaketa fase bakarrean eta epaimahai baten bidez gauzatuko da.

2.- PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan 16 urtetik gorako pertsonak hartu dezakete parte. Bakarka edota taldean aurkez daitezke. Parte-hartzaile edo talde bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu.

3.- GAIA

Musikarekin eta musika eskolarekin zerikusia duena

4.- BALDINTZAK

Lehiaketa honetan aurkeztuko diren lanek orijinalak eta argitaratu gabeak izan behar dute, beste inongo lehiaketatan parte hartu gabeak, eta ezingo dira izan beste lan batzuen kopia, ez guztiz, ezta zati batean ere.

Lanak azalera zuria duen euskarrian behar dute izan; A4 tamaina hobesten da eta bertikalki edo horizontalki ager daitezke. Beste azalera mota batzuk ere onartuko dira, esate baterako, kartulina edo kartoi-luma, eta ez dira onartuko euskarri informatikoan bakarrik aurkeztutako lanak (beharrezkoa da inprimatutako lana aurkeztea). Arte-teknika librea da.

5.- LANEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Logoaren diseinua honela aurkeztu beharko da:

a) Formatua: Papelean: 3x3 cm eta DIN A4ko tamainetan (azalera zurrun baten gainean)

Euskarri digitalean: CD edo pendrive motako USB batean, bai koloretan, bai zuri-beltzean. *Ilustrador* edo beste programaren bat erabili ahal izango da; beti ere, azken hau edozein tamainetara egokitu baldin badaitezke kalitatea



galdu gabe eta *ilustrador* programara eraldatu badaiteke. Erresoluzioa: 200 ppp gutxienez

b) Logotipoa aurkeztuko da diseinuaren zergatiaren azalpen txiki batez lagundurik.

c) Logotipoa edozein komunikazio-euskarritara egokitu ahal izango da, hau da, paperera, gutun-azalera, txartelera, kartelera, helbide elektronikora, web orrira, pankartara, etab.

6.- LANAREN AURKEZPENA

Proposamen bakoitzeko bi gutun-azal aurkeztuko dira, bata txikia eta bestea handia; biak itxita. Gutun-azal txikia egongo da handiaren barnean, eta biek izengoiti bera edukiko dute idatzita azalean. Horietako bakoitzaren barnean honakoa hauek sartuko dira:

Gutun-azal txikian: parte hartzailearen datuak: izen-abizenak edo elkartearen izena, NANaren zenbakia, jaioteguna, helbidea, telefono zenbakia, eta helbide elektronikoa.

Gutun-azal handian: proposatzen den/diren diseinuak, euskarri digitalean eta paperan, 5. oinarrian ezarri den moduan. Nahi izanez gero, lanaren inguruko azalpen labur bat aurkeztu ahal izango da.

Lanak zuzenean edo korreoz aurkeztu ahal izango dira honako helbide honetan:

Loatzo Musika Eskola	Bulego orokorra
	Bulandegi bidea 23, behea
	20150 Zizurkil

Lanak aurkezteko epeak **2019ko martxoaren 14an hasten da eta apirilaren 5an amaitu** (bi data horiek barne).

7.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Logotipoaren balio artistiko eta sinbolikoak, batetik, eta irudikatzeko eta komunikatzeko duen ahalmena, bestetik, izango dira proposamen irabazlea aukeratzeko aintzat hartuko diren alderdiak.



Horretaz gain, diseinu berritzailea eta identifikatzen erraza izatea baloratuko da eta, gainera, erabilera anitzekoa izatea eta hainbat euskarritara egokitze gaitasuna edukitzea.

Epaimahaiak inolako menpekotasunik gabe jardungo du eta goiko irizpideekin bat etorritik erabakiko du zein den proposamen irabazlea.

Edozein pertsona edo taldeekiko konnotazio sexistak, xenofoboak, arrazistak edo iraingarriak dituzten lanak baztertuko dira

8.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia Loatzo mankomunitateko 2 udal ordezkari, musika eskolako 2 ordezkari eta diseinuan aditua den pertsona batek osatuko dute.

Epaimahaia bilduko da aurkezteko epea bukatutakoan. Epaia eman ondoren, gutun-azal txikia zabalduko da, irabazlea nor den ikusteko eta, ondoren, akta jasoko da. Epaimahaiak erabaki dezake lehiaketa irabazlerik gabe uztea, baldin eta aurkeztutako diseinuek ez badute eskatzen den kalitatea lortzen.

Epaimahaiaren erabakia hautatutako proposamenaren egileari jakinaraziko zaio, eta musika eskolako web orriaren bitartez ere emango da ezagutzera.

9.- SARIA

Epaimahaiak sari bakarra banatuko du. Irabazleak jasoko ditu, batetik, **300 euroko saria** eta, bestetik, lehiaketa irabazi duela dioen ziurtagaria.

10.- ERAKUSKETA

Aurkeztutako logotipoen erakusketa egingo da, Loatzo osatzen duten herriren batean.

11.- JABETZA INTELEKTUALA

Irabazleak eta gainontzeko parte hartzaileak, Loatzo udalerriaren mankomunitateari lagatzen dizkiote ustiapen eskubideak, berari bakarrik eta denbora mugarik gabe.

12.- OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte-hartze hutsarekin lehiatzaileek oinarri hauek ezagutzen dituztela eta osoki onartzen dituztela adierazten dute.



13.-ARGIBIDE GEHIAGO

Loatzo Musika eskola, loatzo@loatzo.eus www.loatzo.eus

Tel: 943692619

